

El atardecer desde el refugio es propicio para la contemplación, con la visión de la vertiente francesa del Viso variando de color.

Fotos: Jesús M. Alquézar.



Mont Viso inguruko eski-zeharbidea

ALBERTO ANCIN

SAN Jose bezpera dugu gaur eta 900 kilometro egin ondoren Gap hiria-
ren inguruetara heldu gera. Gure bi-
daiaren helmuga ausnartzen da bidea es-
tutzen eta bihurritzen denean, mendi txurien
oinetan. Guillestre-tik igarotzean eta Vars
eta Izoard bortuen adierazgailuak ikusten
ditudanean, txirrindulari-buruzko gogoetak
etortzen zaizkit burura bapatean, inguru
hautetan gauzatu bait zuen Bahamontes-ek
Tourraren garaipena.

Martxoaren 19. La Monta babeslekua (1.660 metro), Queyras-en bihotz erdian, da gure bidaiaren bukaera eta eskiz-zeharbi-
dearen hasiera. Eliza zahar eta polit bat eta bere ondoan baserriaren antzeko etxe zahar bat, mendi babeslekua bilakatuta. Eta San Jose egunaren lehenengo argi izpiekin ematen diogu hasiera gure ibilaldiari. Hel-
muga, Balif Viso babeslekua, 2.463 metro-
tan eraikia, Mont Visoaren ipar paretaren oi-
netan. Bidea ederki seinalatuta dago, Alpetetako Zeharbide Haundiaren (GTA) bidea bait da. Eguzkia dir dir igoera osoan, eta 2.000 metrotatik gora, Mont Viso beti gure aurrean. Egun guzietan eta bere aurpegi desberdiñak erakutsiz, azalduko zaigu Mont Viso, bere 3.841 metroekin, lurralde hautetako gendarme bezela. Eguerdi aldera heltzen gera babeslekura. Goardarik gabe dago garai honetan eta nahiko nasarra. Me-
rezi du bai, konponketa ederra babesleku honek. Arratsaldean, eta eguzkiaren azken iz-


En la vertiente francesa que hemos tocado por el col de Agnel la nieve es abundante, en contrapunto con la italiana. En la fotografía nos acercamos al col de Chamoussières, paso obligado hacia Saint-Veran.

piak Visoaren aurka isladatzen direnean, zora-
garria da bere ikustaldia, eta han egon gera,
minutu luzeetan zehar, begira eta begira.

Martxoaren 20. Quintino Sella babesle-
kura joan behar dugu gaur. Mont Viso eta
Mont Graneroren arteko lerro arrokatsua
pasa behar dugu, Col du Couloir du Por-
zehar (3.019 m.) Frantzia eta Italiaren arteko
muga. Couloir honetako desnivela oso han-
dia da, 50 gradu inguru, eta aproposa da
goi-muturreko eski zaleentzat, batez ere
gaur dagoen bezelako elur onarekin. Bere
oinetan Giacoletti babesleku militarra, txoko
zoragarri batetan. Beroa handia da eta he-
mendik aurrerako bidea nahikoa abalantxo-
soa ematen du, lehenbaitlehen pasatzeko
modukoa. Bailaran ondo ikusten da Crissolo
herria. Italian gaude, eta Italian egongo ga-
ren bitartean, elurra oso eskaxa. Eguerdi al-
dera, Quintino Sella babeslekura heltzen
gera. Nahiz eta 2.640 metrotan kokatua
izan, aterpera heldu baino lehen eskiak ken-
du beharko ditugu, horren eskaxa bait zen
elurra. Babesleku hau ere, goardarik gabe
dago garai honetan, baina bere neguko zatia,
oso txukuna eta zainduta dago, tximinia
on batekin ornituta.

Martxoaren 21. Gaurkoa, oso ibilaldi
erosoa ematen zuen, paperetan behintzat. Bi
igoera errezak, Paso San Chifredo eta Paso
Gallarino (biak 2.700 m.) heldu arte, eta he-
mendik, jeitsiera luzea, Pontechianale-raino
(1.700 m.). Lehenengo zatia arroken arteko
eski jeitsiera da, baina 2.300 metrotatik be-
heruntz, elurra desagertzen da eta gure go-
zoa, eski-kros martxa batetan bilakatzen da.

Jeitsiera gogorra egiten zaigu benetan!
Orain eskiak kendu eta hemendik 20 metro-
tara eskiak berriz ere jarri, hobe bait zen elu-
rez beteriko arroken arteko zulo handiak
pasatzeko, eskiak jartzeak oiñez pasatu
baiño. Guztiz eskiagarria zela esan ziguten
telefonoz orain dela 7 egun, baina ez da
horrela suertatu eta zer egin behar diogu!



Pontechianaleko presa ondoan heltzen gera kaminoa eta hemendik Chianaleraino, taxi biren bidez joaten gera. Herri honetan izango dugu lehenengo aldiz babesleku gordeta eta afari bero beroa emango digute. Herri polita Chianale, bainan jende gutxi gelditzen da bertan. Bizimodu eskaxak eta txirotasunak uxatu egin dute jende gaztea Torino alderuntz eta udara aldean bueltatzen dute bakarrik oporrak pasatzeeko.

Martxoaren 22. Frantziara itzuli behar dugu gaur, elurraren billa, eta horretarako Chianaletik gora dagoen Col d'Agnel (2.744 m.) pasa behar dugu. Elurra ari du Chianaletik gora abiatzen geranean, eskiak sorbaldetan. 2.200 metroan topatzen dugu elurra. Hemendik gora ez dago betere zailtasunik. Agnel lepoa heldu baino lehenago zerua garbi garbia gelditu da berriz ere. Lepoan bertan haizea eta hotza ikaragarriak dira eta denbora gutxi hartzen dugu leku zoragarri hau ondo dastatzeko. Ahal dugun moduan eskiko fijazioak lotzen ditugu eta abiada bizian Agnel babeslekuaren billa. Salda bero bat eskeintzen digute eta atsedend txiki bat egiten dugu martxa jarraitu baino lehenago. Agnel babeslekutik (2.600 m.) ederki ikusten da Chamoussiere leporaiño egin behar dugun bidea, Saint Veran-era jeisteko. Igoera ondo estalita dago elurrez bainan kontuz igo behar dugu, txokorik egokienak aukeratuz elur oldeak uxatu asmoz. 1,30 ordu inguru Agnel babeslekutik Col Chamoussiere-raiño (2.988 m.). Hemen berriz ere haizea eta hotza gorriak, bainan aldi berean eta nire ustez, zeharbide guztian zehar, ikusiko dugun ikustaldirik ederrena. Mendebalderuntz jeisten den bailarak, zuzen zuzen eramaten zaigu Saint Veran oinetaraino. 500 metro jeitsi eta berehala elurra putrea dago eta kontu haundiz ibili behar dugu. Zuhaitz-artean sartzen gera, leku paradisiako batetan. Saint Veran ikusten dugu lehenengo aldiz. Aurrerako bidea, iraupen-eskiko pistetan zehar izango da, txirristapen gozo baten bidez. Dena den, nekatuta gaudela Saint Veran-eko kaleak zapaltzen geranean, oso luzea izan bait da gaurko abiada, 9 ordutako inguru. Benetako herri polita Saint Veran! Jende franko dago oraindik hemengo hoteletan, iraupenekoeskia egiteko etorriak, dudarik gabe. Gu bezelako jende franko ere ikusten da, herri hau omen bait da asiera eta bukaera jende askorentzako eski-zeharbideetan. Saint Veran da, Europako herri habitatuaren artean, altuena, bere 2.020 metroetan.

Martxoaren 23. Agnel babeslekura itzuli behar dugu gaur, Longet lepotik zehar. Egun guzietan bezela, eguraldia ezin hobea. Longet lepoa heltzeko (2.701 m.) malda luzeak baiña erosoak pasa behar ditugu, udaran belardi ederrak. Eta Longet lepotik behar dugu, 800 metroko jeitsiera, azken parte zahaitz artean, eta elurra gozatzeko modukoa. 2.100 metroetan, Fontgillarde-tik Col d'Agnel-era igotzen den kaminoa topatzen degu eta, kamino luze horri jarraituz, Agnel babeslekura itzultzen gera. Neguan kaminoa hau iraupen-eskiko pista bezela erabiltzen da eta talde batuekin gurutzatzen gera bidean. Guri oso aproposa iruditu zaigu horrelako eski egiteko.



Temprano y con el sol a nuestras espaldas no dejamos de aprovechar el esquí entre los alerces, que nos acompañarán hasta el pueblo de Ristolas, fin de travesía.

Última etapa, superando el col d'Eychassier, cuyo fuerte desnivel nos obliga a caminar con los esquís a la espalda.

Martxoaren 24. Gure asmoa «balade» bat egitea zen gaur, bainan... Asteko eguraldia. Aize bolara izugarriak eta elurra eten gabe, babeslekutik abiatzen geranean. Col d'Eychassier-erako bidea hartzen dugu.


Esaten dutenez, Queyras alde honetan eta ipar-mendebaldeko aizearekin, eguraldi ona zihurtatua dago. Gaurko haizea ipar mendebaldetik datorrigu eta itzaropentsuak ibiltzen gera maldeetan gora. Eskiko, larruak kentzen ari gera lepo gainean, eta eguzki izpi makal batzuk isladatzen dira laino artean. Hamar minututan zerua guztiz garbia. Col d'Eychassier-etik (2.957 m.) aurrerako bidea zaila gertatzen da, norabidea ez galtzeko. Errezena bailara beheruntz joatea ematen du, baina horrela La Monta inguruetara joango giñateke, eta gure asmoa Ristolas-era joatea da. Galdetu onderen, gure eskerretara jotzen dugu, Zenbat eta goitasun txikiago galdu hobe. Beste lepo batetara igo behar dugu iraingo honetan, eskiak leporatuz, azken izerdiak ateratzeko. 2.844 metroetan, Col du Clot du Poulain heltzen gera. Malda gogorra bainan ez oso luzea. 1.300 metroko jeitsiera polita gelditzen da Ristolas-eraino. Hau dek poza!

Lasai lasai irristatzen gera elur-hauts artean, ibilaldiaren azken uneak dastatzen eta gozatzen. Ristolas-eko eski pistetan amaitzen gure zeharbidea. La Monta babeslekua, ibilaldiaren abiapuntua, 3 kilometrotara dago hemendik. La Monta zaintzalea, Michel Frendok eta bere emazteak prestatzen dituguten bazkaria, benetan gozoaeta eskertzekoa gertatzen da, zeharbide osoan pasa ditugun unerik onenak sendotzeko modukoa.

Berehala trasto guztiak kotxeetan bildu eta gure Euskalherriko itzulia.

Agur bero bat Queyras txoko ahaztezin honi eta hurrengo bat arte.

Fotos: Jesús M. Alquézar.



TOUR AL VISO

Datos complementarios

CASIMIRO BENGOCHEA

1.ª Etapa: LA MONTA-REFUGIO DEL VISO

Salida de la Monta. (Hay albergue de montaña para pernoctar.) Altitud: 1.660 m.

Salida: 8 h. de la mañana.

Esquí al hombro por la carretera nevada.

A las 8 h. 40' calzamos los esquís con pieles.

Refugio del Viso, propiedad del C.A.F. Altitud: 2.463 m., a las 12 h. 15'.

Refugio abierto, sin guarda y sin butano, menos mal que nos lo indicaron en el pueblo y subimos el infiernillo.

Tampoco hay leña ni posibilidad de hacer fuego.

Lo que sí hay son goteras, que cuelgan heladas del techo.

Tiempo de subida: 4 h. 15'. Desnivelación: 803 m.

2.ª Etapa: REFUGIO DEL VISO-REFUGIO QUINTINO SELLA

Salida: 7 h. 10' con cuchillas desde la puerta del refugio.

Subida al col de Couloir de Porc (3.019 m.) con los esquís en la mochila los últimos metros. Crampones recomendados.

En el collado hay una estaca en donde colocamos una cuerda, para facilitar la bajada hasta un pe-



queño resalte en donde calzamos los esquís y descendemos el Couloir.

Inclinadísimo, sobre todo al comienzo, más de 50 grados.

Descendemos derrapando y haciendo «ramasse» con los bastones. Los especialistas, a saltos. Longitud aproximada de 100 a 150 m.

Bonita travesía hacia la derecha hasta el refugio Giacoletti, propiedad del ejército italiano, cerrado, en donde almorzamos.

Altitud: 2.739 m. 10 h. 15'.

Travesía a media ladera, por zonas muy avalanchosas con los detectores en marcha.

A las 11 h. 15' ponemos pieles para ascender al refugio Quintino.

Sella a las 12 h. 30'. Altitud: 2.640 m.

Refugio del C.A.I., cerrado con la parte pública abierta; leña, estufa, en fin, muy confortable.

Entorno grandioso bajo las murallas nevadas del Viso y sobre el lago helado.

Tiempo de travesía: 5 h. 20'. Subidas: 850 m. Bajadas: 470 m.

3.ª Etapa: REFUGIO QUINTINO SELLA-CHIANALE

Salida: 7 h. 15'.

Bajada hasta el nivel del lago y luego algo más abajo. Ponemos pieles y ascendemos al col Chiafredo. 8 h. 15'. Viento fuerte.

Pequeño descenso sin quitar pieles y otra subida suave hasta el col de Gallarino (2.700 m.). Viento fortísimo.

Empezamos el descenso, nieve buena, durilla.

Luego el esquí-cross, explicado hasta Castello. 1.576 m. a la orilla del embalse. 12 h. 30'.

Taxi hasta Chianale. Buen albergue y barato. Estamos ya en Italia.

Horario: 5 h. 15'. Subidas: 200 m. Bajadas: 1.224 m.

4.ª Etapa: CHIANALE-SAINT VERAN

A la mañana nieve con viento. Salida: 7 h. 20'. Cambio de rumbo en vista del tiempo y las condiciones peligrosísimas de avalanchas. Ha estado lloviznando por la noche.

Col Agnel: 2.746 m. 10 h. 30'. Ventisca. Descenso al refugio Agnel (2.580 m.). 10 h. 45'. Volvemos a estar en Francia.

Comemos algo y luego buena y fuerte subida con los detectores en marcha hasta el col de Chamoussiere. En el col, ventisca.

Gran bajada hasta Saint Veran, al final por pista de fondo. 4 h. 15'. Altitud: 2.100 m.

Es el pueblo habitado más alto de Europa.

Hotelito majo y bien de precio. Cena de primera. Horario: 8 h. 55'. Desnivelación: subidas, 1.472 m.; bajadas, 948 m.

5.ª Etapa: SAINT VERAN-REFUGIO AGNEL

Salida, con tiempo excelente, a las 7 h. 15'.

Col Longet: 9 h. 15'. Altitud: 2.701 m. Buen descenso al final entre bosque hasta el fondo del valle al puente Arianne (2.024 m.): 10 h. 30'.

Ascenso por el valle al refugio Agnel, por el que pasamos ayer (2.746 m.): 12 h. 50'.

Horario: 5 h. 35'. Subidas: 1.157 m. Bajadas: 677 m.

6.ª Etapa: REFUGIO AGNEL-RISTOLAS

Nos levantamos a las 6 h. 30', pero al haber una gran ventisca, volvemos al «catre». No mejora y no tenemos más remedio que salir a las 8 h. 15'.

Col Eychassier (2.917 m.) entre niebla cerrada: 9 h. 15'.

Quitamos pieles y con los detectores a punto, descendemos casi a ciegas, entre nieve profunda.

Ascenso con los esquís al hombro a pico por la pendiente, para evitar la avalancha al col Poulin (2.658 m.): 10 h. 15'.

Inolvidable descenso por nieve virgen hasta Ristolas (1.600 m.): 11 h. 45'.

Horario: 3 h. 30'. Subidas: 437 m. Bajadas: 1.517 m.

Desnivelación total subidas: 4.919 m.

Desnivelación total bajadas: 4.836 m.

Travesía realizada la última semana del mes de marzo de 1987.

Es la época propicia para hacer esquí de montaña en esta zona, aunque en general, la nieve era escasa.

Travesía efectuada por Iñaki Bengoechea Busto, Alberto Ancin, Jesús M.ª Alquézar y Casimiro Bengoechea.